

## GOIZ EGUZKI EGUNEKO ARRETA ZERBITZUAREN ARAUTEGIA

### **1.- Xedea.**

Araudi honen xedea, Hernaniko Udalerrian eta Buruntzaldea eskualdean, eskaintzen den eguneko arreta deituriko zerbitzuan parte hartu eta sarbiderako prozedura arautzea da. Zerbitzu hau Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak zuzenean kudeatuko duena.

### **2.- Arau-erreferentziak.**

Gizarte zerbitzuetako legea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak lortzea eskubide unibertsala eta subjektiboa dela, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal izango dute, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Lege horrek ezartzen duen epea amaitzen denean (2016-12-25), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona guztiek.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Eguneko Arretako Zerbitzua sartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta ezartzen du udalen gizarte zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, horrela dio:

- 5. artikuluan: Udalek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan zehaztutako lehen mailako arreta-zerbitzu guztiak emateko, telelaguntza zerbitzua izan ezik.
- 32. artikuluan laguntzen definizioa dator: pertsonen eskura jartzen diren baliabide formalak (zerbitzuak eta prestazioak) eta informalak (sare soziofamiliarrekoak) haien funtzionamendu indibiduala, garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko, baita haien komunitate barruan partaidetza aktiboa, bizimodu independentea eta autonomia izan dezaten sustatzeko ere.
- eranskinean, 1.7 fitxan, eguneko arretako zerbitzuak buruzkoan, zerbitzu motak definitzean, horrela agertzen da: zerbitzu hau aldi batean edo modu iraunkorrean erabiltzeko da eta mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) arreta ematen die.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak adinekoen eguneko arreta zerbitzua martxan jartzeko beharrezkoa du zerbitzu horrek izango duen gestio eredua eta funtzionatzeko modua martxan jarri aurretik onartzea. Udal eskumeneko gizarte-zerbitzuen antolakuntzarako eskubide hori 12/2008ko 42.1 artikulua eta 185/2015eko dekretuko 14. artikulua ematen dio.

Ondorioz eta Toki Araubidearen oinarriari buruzko 7/1985 22.2 artikuluan jasotakoaren arabera, Hernaniko Udal plenoak eguneko arretako arautegi hau onartzen du.

### **3.- Eguneko arretaren definizioa.**

Eguneko arretarako zerbitzuak egunean zeharreko arreta eta egonaldiako baliabide bat dira. Baliabide horrek ohiko bizilekuan egotea ahalbidetzen die eguneroko bizitzan moldatzeko nolabaiteko autonomia pertsonala duten adinduei.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioa eta zerbitzuen zorroari buruzkoan a) udal-eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak Atalean Eguneko arreta definizioari jarraituz, zerbitzu hauek pertsonen eskura egunean zehar erabil dezaketen gailu bat jartzen dute pertsonen eskura. Gailu horren bitartez, pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie.

Bateraezintasunak:

- Eguneko zentroarekin.
- Egoitzarekin.

#### **4.- Helburuak.**

a) Helburu orokorra

Mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero.

b) Helburu Zehatzak:

b.1) Erabiltzailearentzat

- Adinekoei harremanak eta gizarte-ekintzak garatzeko marko egokia eskaintzea.
- Adinekoa familia eta bere testuinguruan bertakotua mantentzea.
- Bere gaitasunen arabera norberaren independentziari ahalik eta gehien eutsi edo/eta ahalik eta gehien berreskuratzea.
- Gaitasun kognitiboen galera atzeratzea estimulatze teknikak erabiliz.
- Talde partaidetza sentimendua landu.
- Sozializazioa bultzatu elkarren arteko komunikazioa landuz.
- Isolamenduak dakartzan ondorioak ekidin.
- Depresio, antsietate sintomak aurrea hartzea.
- Gaurkotasuna eta errealitatearekin lotura areagotu.
- Aisialdia modu positiboan bizitzea eta indartzea.
- Ariketa fisikoa eta osasunaren arteko lotura landu.
- Arreta eta memoria sendotzea.
- Komunikazioa areagotzea eta iritzia ematea indartzea.
- Sormena areagotzea ekintza anitzen bitartez.
- Herriko ekintza komunitarioetan eragile aktibo bilakatzea.
- Herriko ekintza komunitarioetan parte hartzea.
- Adinekoen artean harremanak areagotzea.

b.2) Familiarentzat.

Araudi honetan aipatzen diren pertsonak bere ingurunean mantentzen dituzten familiei laguntza soziala eta asistentziala eskaintzea.

#### **5.- Hartzailleak.**

**Hernanin edo Buruntzaldean erroldatuak.**

Hartzaileak mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden 65 urtetik gorako adinekoak dira (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa dutenak). Pertsonak duen arreta pertsonalizatutako planak eguneko arreta bezalako zerbitzuak dituen beharrei erantzuten diela ikusten denean, gizarte-zerbitzuen onespenerekin.

Salbuespen egoerak.

- Mendetasunik aitortuta ez duten, ahultasun egoeran, egoera ziurgarrian edo bakardade egoeran dauden pertsonak.
- Hernaniko Udaleko gizarte-zerbitzuak aztertu eta baloratu ostean erabakitzen dituen bestelako salbuespenak.

#### ***6.- Zerbitzua jasotzeko baldintzak.***

Aurreko atalean jasotako administrazio baldintzaz gain (mendetasun I gradua, 65 urte, erroldatua), premiazko hauek kontuan hartuko dira:

- Kasu bakoitzean bidezkoa den zerbitzu-modalitatearen bidez erantzuten zaien premien estaldurarako intentsitate txikiko babesa behar eta mendetasun arriskuan izatea.
- Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.
- Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.
- Zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.
- Gizarte langilearen esku egongo da erabiltzailearen mendekotasuna maila neurtzeko zein balorazio mota burutuko den.

#### ***7.- Zerbitzuaren eskaintza. Prestazioa eta ezaugarriak.***

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak zerbitzu publiko hau, gizarte zerbitzuetako legeak 12/2008ko legeak eta 185/2015 Dekretuak, jasotakoaren arabera zerbitzua eskainiko du.

Zerbitzua izango da:

- Goizez astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00ak bitartean emango da.
- Urteko egutegiaren arabera emango da. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak beretzat gordetzen du ordutegian eta egutegian aldaketak egiteko eskubidea. Egiten diren aldaketak jakinaren gainean jarriko dira.

Zerbitzuaren prestazioak:

Zerbitzu sozialak:

- Informazioa.
- Jarraipen-balioespena.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:

- Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: trebetasunen garapena, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzen dituzten jarduerak eta ariketa sinpleak.
- Hezitzailea, aisia, hezkuntza eta kultura - jarduerak
- Lagun egite soziala.
- Estimulazio tailerrak
- Mantenua (otorduak)

Bestelako ezaugarriak.

Osasun arloko arreta ez da Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen erantzukizuna eta familiaren ardurapean jarraitu beharko du.

#### ***8.- Erabiltzaileak egin behar duen diru ekarpena.***

Zerbitzuaren erabiltzaileak diru ekarpen bat egin beharko du eta ordenantza fiskalean zehaztuko da I Eranskinean dauden irispideak kontutan izanik.

#### ***9.- Erabiltzaileen betebeharrak:***

- Dagokion diru ekarpena ordaintzea (aurreko atalean jasotakoaren arabera).
- Zerbitzura erregularitasunez joatea.
- Zerbitzuko barne-arauegia jasotakoa betetzea.

#### ***10.- Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak dituen betebeharrak..***

- Eskaria jaso, baloratu eta eskaerak erabakitze bideratzea.
- Zerbitzuaren eskaeraren ebazpena burutu eta erabiltzaileari horren berri ematea.
- Erabiltzaileei zerbitzua jasotzeagatik dagokien ekarpen ekonomikoaren irizpideak prestatzea eta bakoitzaren ebazpena hartzea eta jakinaraztea.
- Zerbitzua eta gainerako prestazio eta bitartekoak koordinatzea.
- Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluaketa egitea.
- Zerbitzua aurrera eramateko behar diren giza baliabide eta baliabide materialak badaudela bermatzea.
- Alderdi guztien betebeharrak zehazten dituen kontratua sinatzea.

#### ***11.-Zerbitzuaren izapide prozedura.***

Prozedura pertsonak Oinarrizko Zerbitzu Sozialetan egiten duen eskaerarekin hasiko da. Gizarte langileak zerbitzuaren berri emango dio (ezaugarriak, baldintzak, onurak, zailtasunak, epeak...).

Bertan, eskaera eredu normalizatua azalduko zaio pertsonari.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Nortasun agiria.
- Familia-liburua, edo bikote diren agiria.
- Mediku txostena.
- Ordenantza fiskala aplikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa.

Eskaera osatuta dagoenean, gizarte zerbitzuek dokumentazioa eta egoera aztertuko dute. Gizarte zerbitzuetako teknikariak eskariak ebaluatu ondoren, txostena egingo du, bertan eskatzaileak baldintzak betetzen dituen ala ez adieraziz. Proposamena aldekoa denean, interesatuak zerbitzuarengatik ordaindu beharko duen tasa jasoko da.

Azkenik, proposamena Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko presidenteari bideratuko zaio; honek txostena kontuan hartuta behin betiko ebazpena eman dezan. Honen berri interesatuari jakinaraziko zaio. Ebazpena baietzkoa bada bereiztuko da jangela zerbitzua jasoko duen edo ez.

Ebazpena zerbitzua emateko bada erabiltzaileak zerbitzua jasotzen hasi baino lehen kontratua sinatu beharko du.

#### ***12.- Itxaron zerrenda.***

Aurkeztutako behar guztiei erantzuteko adinako plaza kopururik ez dagoelako eskaera batzuk erantzunik gabe geratuko balira, itxaron zerrenda bat osatuko da.

Itxaron zerrenda osatzeko jarraipen kronologikoa hartuko da kontutan salbuespen egoeratan izan ezik. Salbuespen egoerak gizarte langilearen txostenak adieraziko dute.

#### ***13.- Zerbitzuko erabiltzaile izateari uztea.***

- Borondatezko baja.
- Zerbitzua arautzen duten baldintzak betetzeari uzten badio.
- Zerbitzuan sartu zenetik mendetasun mailan gradu I baino gehiago duela somatzen edo baloratzen denean, eta beste zerbitzu bat egokiagoa dela ikusten denean.
- Hamabost egun baino gehiago hutsegiteagatik. Ospitaleratzealdiak salbuespen bezala kontuan hartuko dira.
- Heriotza.

#### ***14.- Zerbitzua ukatzea.***

Zerbitzuaren prestazioa ukatu ahal izango da ondorengo arrazoietakoa batengatik:

- Eskatutako baldintzak betetzen ez direlako.
- Betebeharrak ez betetzeagatik.
- Behar bezala oinarritutako beste arrazoiengatik.

#### ***15.- Finantzaketa.***

Zerbitzuaren urteko finantzaketa jarraian adierazten diren iturrien bidez egingo da:

- Udalaren ekarpena.
- Onuradunek egiten duten ekarpena.

#### ***16.- Eguneko Arreta Zerbitzuko baliabideak .***

Eguneko Arreta Zerbitzua Goiz Eguzki jubilatuta Etxean eskainiko da.

## I. ERANSKINA

### EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

#### A) Onuradunen ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Honako elementu hauek balioetsiz kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: errenta, ondarea eta onuradunen kopurua.

1. Errenta gisa ulertzen da onuradunak edo onuradunek honako bide hauetatik guztira jasotzen dituzten diru sarrera garbiak:

- Lanaren etekinak, barne direla pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimenetakoak direla ere; aldi baterako edo bizi arteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.
- Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.
- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Errenta kalkulatzean, ez dira diru sarrera modura hartuko:

- Etxebizitza Prestazio Osagarria, PEKen titularrentzako etxebizitzaren osagarria eta Etxebizitza Legetik erator litezkeen laguntzak.
- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoak.
- Seme edo alaba adingabe bat ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa.
- Lanbide zentro batean jarduteagatik jasotako haborokin ekonomikoak.
- Aurretiko ohiko etxebizitza batetik alde egin behar izanez gero arkitektura-oztopoengatik edo salbuespenezko arrazoi batengatik (genero indarkeriaren biktima...), etxebizitza haren alokairutik jasotakoa, etxebizitza berria alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko zenbatekoraino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen parte). Zenbateko baten eta bestearen artean gaindikinik balego, diru sarrera giza hartuko da.

Diru sarrera guztietatik, honako hauek kenduko dira:

- Ebazpen judizial bidezko banantzeagatik konpentsazio pentsioen edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatikoen ordainketa, halakorik balego; sarrera horiek kanpo uzteko, dagokien justifikazioa aurkeztu beharko da.
- Zerbitzuen aldibereko erabileragatik ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza edo lanbide izaerako beste gizarte zerbitzu baten onuraduna bada, urteroko bat kenduko da diru sarreretatik, laguntza izaerako beste zerbitzuaren gaineko eskumena duen administrazioaren ebazpen bidez ezarritako ekarpenaren eguneko prezioaren arabera.

2. Ondarea onuradunen kapital higigarri nahiz higiezin guztia da, eskaria egin aurreko bost urteak kontuan hartuta; kanpoan geldituko da saldutako kapital higiezina, haren etekin ekonomikoa dagoeneko kapital higigarrian sartuta egonez gero.

Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korranteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; bizi aseguruak eta aldi bateko zein biziarteko errentak; arte objektuak, zaharriak eta bestelako objektu balioetsuak.

Kapital higiezintzat jotzen dira landa eta hiri izaerako ondasunak. Ohiko etxebizitza (garajea eta trastelekua barne) ez da ondorio hauetarako kapital higiezintzat hartuko.

Era berean, ez da zenbatuko ondare higiezina, baldin eta haren gaineko titulartasuna %100ekoa ez bada.

Bizikidetzaren unitateak hartuko da ohiko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatzen dutena.

**Ezarritako orduko prezioari onuradunek egin beharreko ekarpenaren kalkulua:**

Unean-unean horri buruz indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da erabiltzaileak arautegi horretan ezarritako gehieneko prezioari egin beharreko ekarpena; erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa hartuko da horretarako kontuan, A) atalean aurreikusitakoari jarraituz kalkulatu.